Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/25

## TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2022KO URRIAREN 25EAN GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Ainhoa Arrozpide Landa.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

### 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

### 1.1.- 2022/09/27KO BILKURA.

Batzarkideek 2022ko irailaren 27ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### 1.2.- 2022/09/29KO BILKURA.

Batzarkideek 2022ko irailaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### 2.- TXOKOARGI ELKARTEA ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAN INSKRIBATZEA.

Esp.zk.: ID.17/2022-0139
2022IEUE0002

**Ikusita**

Txokoargi Kultur Elkartea Usurbilgo Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzeko eskabidea egin dute 2022/09/13an.

Eskabidearekin batera, irabazi asmorik gabeko elkarteen erregistroari buruzko ordenantzaren hirugarren puntuan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu dute.

Kultura, euskara eta gazteria saileko teknikariak aipatutako elkartea irabazi asmorik gabeko elkarteen erregistroan inskribatzearen aldeko txostena egin du.

**Kontuan hartuta**

- Udalaren irabazi asmorik gabeko elkarteen erregistroari buruzko ordenantza (GAO 2005/08/18).

- 
- Kultura, euskara eta gazteria saileko teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**E R A B A K I A**

**Lehena**: TXOKOARGI KULTUR ELKARTEA irabazi asmorik gabeko elkarteen udal erregistroan inskribatzea.

**Bigarrena**: Erabaki honen berri interesatuari eta kontu-hartzaileari ematea.

**3.- 2021-2022 IKASTURTEAN EUSKARA IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAKO DIRU-AGUNTZAK BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

Esp.zk.: 2022UDIE0001

**Ikusirik**

Tokiko Gobernu Batzarrak, maiatzaren 31n, euskara ikasteko ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntzen oinarriak onartu zituen.

Aipatutako oinarriak 2022ko ekainaren 13an argitaratu zituzten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 27an hasi, eta uztailaren 8an amaitu zen. Tarte horretan, 49 lagunek egin zuten dirulaguntza-eskaera, denera 50 ikastarotarako.

Eskaerak aztertuta, Euskara Saileko teknikariak txostena egin du irailaren 19arekin.

Ebazpen-proposamena urriaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Interesatuei hamar eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus webgunean eman zen behin-behineko ebazpenaren berri.

Epe horretan ez du inork alegaziorik aurkeztu.

**Araudi aplikagarria**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren 2020-22 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2020/01/30)
- 2021-2022 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako dirulaguntzen oinarriak (GAO, 2022/06/13).
- Dirulaguntzen ebazpen-proposamena (GAO, 2022/10/03)

Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/25

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**E R A B A K I A**

**Lehenengoa**: 2021-2022 ikasturtean euskara ikasi izanagatik dirulaguntza eskatu dutenei honako zenbatekoak ematea.

| | **Izen-abizenak** | **Dirulaguntza** | **Oharrak** |
|---|---|---|---|
| **1** | Alazne Saez Lizarralde | 600,00 € | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| **2** | Maria del Carmen Garcia De Paz | 308,00 € | |
| **3** | Maria del Carmen Garcia De Paz (2. eskaera) | 292,00 € | 9. artikulua: Bi eskaerak batuta gehienez ere 600 euro. |
| **4** | Carola Silvina Giraudo Olaviaga | 600,00 € | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| **5** | Jone Arregui Lopetegui | 491,00 € | |
| **6** | Maria Lourdes Arregui Lopetegui | 491,00 € | |
| **7** | Silvia Crespo Rubio | 491,00 € | |
| **8** | Maria Purificación Jimenez Fernandez | 491,00 € | |
| **9** | Imanol Uribe Unanue | 152,00 € | |
| **10** | Aitor Zabala Tapia | 152,00 € | |
| **11** | Garikoitz Udabe Pagola | 517,00 € | |
| **12** | Jon Imanol Etxabe Telleria | 600,00 € | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| **13** | Maria Jose Sixto Mendez | 491,00 € | |
| **14** | Celenia Rosa Garcia Martinez | 600,00 € | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| **15** | Garazi Mutiloa Vidal | 108,00 € | |
| **16** | Asier Unsain Calvo | 152,00 € | |
| **17** | Noelia Perez Alcala | 600,00 € | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| **18** | Olatz Aranzacistroqui Caperochipi | 491,00 € | |
| **19** | Nora Errazquin Eceiza | 491,00 € | |
| **20** | Elene Rekondo Yurrita | 331,00 € | |
| **21** | Eli Ramona Bello Guilarte | 491,00 € | |
| **22** | Jokin Hernandez Sarasua | 433,00 € | |
| **23** | Joana Amezaga Velasco | 600,00 € | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| **24** | Francisco Javier Espina Roman | 491,00 € | |
| **25** | Francisco Javier Delgado Caminero | 491,00 € | |
| **26** | Ahmed Abou Messaouda | 226,00 € | |
| **27** | Eymi Yorlemy Galindo Lainez | 491,00 € | |
| **28** | Jone Allur Maiz | 382,00 € | |
| **29** | Cristina Carrasco Chanclon | 371,00 € | |
| **30** | Helene Astiazaran Asensio | 152,00 € | |
| **31** | Izaro Arruti Tapia | 152,00 € | |
| **32** | Oier Zubigarai Portu | 152,00 € | |
| **33** | Amina Dar Rhaissa | 491,00 € | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **34** | Labrit Illarramendi Elexpuru | 491,00 € | |
| **35** | Marina Tena Escribano | 580,14 € | |
| **36** | Andres Laura Burguete | 491,00 € | |
| **37** | Ainhoa Nerea De Urizar Bel | 600,00 € | 9. artikulua: ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| **38** | Aroa Boubeta Uzkudun | 491,00 € | |
| **39** | Maria Alejandra Til Lerin | 600,00 € | 9. artikulua: ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| **40** | Luis Fernando Mosquera Gracia | 308,00 € | |
| **41** | Jessica Mosquera Gracia | 308,00 € | |
| **42** | Nerea Iraola Jauregiberri | 409,00 € | |
| **43** | Carlota Bucher Melgar | 600,00 € | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| **44** | Txomin Bordagaray Martija | 331,00 € | |
| **45** | Uxue Diez Lure | 491,00 € | |
| **46** | Udane Valin Salaverria | 491,00 € | |
| **47** | Amaiur Caballero Eizagirre | 330,00 € | |
| **48** | Dana Scarinci | 308,00 € | |
| **49** | Aitor Villafafila Illarramendi | 491,00 € | |
| **50** | Anna Puibert Grima | 444,00 € | |
| | **GUZTIRA** | **21.136,14 €** | |

**Bigarrena:** Dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4200.480.335.00.01 2022 (A 924 – 2022).

**Hirugarrena:** Ordainketak bideratzerakoan Udalarekin zorrik duenari Udalak ez dio dirulaguntzarik emango.

**Laugarrena**: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**Bosgarrena:** Erabakiaren berri Udaleko iragarki-taulan eta www.usurbil.eus webgunean emango da.

**Seigarrena:** Kontu-hartzailetzari erabakia jakinaraziko zaio, ordainketak bideratu ditzan.

**4.- CEDIPSA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DISTRIBUIDORA DE PETROLEO, S.A. ENPRESAK AP-8, P.K. 27,1 (DONOSTIARUNTZ) – ARITZETA I HELBIDEAN EZARRI NAHI DUEN GASOLINDEGI JARDUERARI ALDEKO INFORMEA EMATEA.**

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, CEDIPSA, COMPAÑIA ESPAÑOLA DISTRIBUIDORA DE PETROLEO, S.A. enpresak AP-8, P.K. 27,1 (Donostiaruntz) - Aritzeta I helbidean ezarri nahi duen gasolindegi jardueraren osasun-txostena helarazi du. Osasun-txostena ALDEKOA da.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2022-0233
ESKATZAILEA: CEDIPSA, COMPAÑIA ESPAÑOLA DISTRIBUIDORA DE

Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/25

PETROLEO, S.A.
JARDUERA MOTA: Gasolindegia
NON KOKATUA: AP-8, P.K. 27,1 (Donostiaruntz) - Aritzeta I

Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendariak berriz, 2022ko maiatzaren 4an, Lurzoruaren Prebentzioaren 4/2015 Legearen baitan, honakoa jakinarazi du hitzez hitz:

> Por lo tanto, considerando que hasta el 2007, fecha en la que comenzaron las obras para la instalación de la Estación de Servicio con imagen AVIA y propiedad de COMPAÑIA ESPAÑOLA DISTRIBUIDORA DE PETROLEO, S.A., en el emplazamiento ubicado en AP-8, PK 27.1 de Usurbil (Gipuzkoa), no se había desarrollado actividad potencialmente contaminante alguna en el emplazamiento, **no procede la tramitación de ningún procedimiento de declaración de la calidad del suelo** para la legalización de la actividad, ya que no se daría el supuesto 1.a) el artículo 23 de la *Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo,* por la cual debe iniciarse el procedimiento de declaración en materia de calidad del suelo.
>
> No obstante lo anterior, debido a que la actividad desarrollada actualmente en el emplazamiento se trata de una actividad incluida en la Disposición Final Primera del Decreto 209/2019, de 26 de diciembre, por el que se desarrolla la Ley 4/2015, de 25 de junio, por la que se modifica el Anexo I de la Ley 4/2015, esto es, considerada como una actividad potencialmente contaminante del suelo, a partir de ahora, siempre y cuando se de alguno de los supuesto establecido en el en el artículo 23 de la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, en el emplazamiento ocupado por la actividad, deberá atenderse a todo lo establecido por la citada Ley, y el Decreto 209/2019, de 26 de diciembre por el que se desarrollada la Ley 4/2015, de 25 de junio.
>
> Finalmente, cabe decir que, en la siguiente actualización del *Inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo*, se procederá a incluir la superficie ocupada por la actividad de *"Comercio al por menor de combustible para la automoción en establecimientos especializados"*, en el mencionado inventario.

Uraren Euskal Agentziaren Zuzendariak berriz, 2016ko ekainaren 21ean emandako ebazpenaren bidez, Igara ibaiaren arroko ibarbide batera hondakin-urak isurtzeko baimena eman zion CEDIPSA, COMPAÑIA ESPAÑOLA DISTRIBUIDORA DE PETROLEO, S.A. enpresari.

Guzti hau ikusirik eta aurkeztutako proiektua aztertu ostean, ingurumen eta nekazaritza teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2022ko irailaren 16an honako txostena eman du:

**BULEGO TEKNIKOA**
**Udal Teknikariak Alkate andreari**

**ARITZETA I GASOLINDEGIAREN LEGEZTAPENA. JARDUERA BAIMENA**

Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/25

**(CEDIPSA, COMPAÑÍA DISTRIBUIDORA DE PETROLEO SA)**

**GAIA**: Aritzeta I gasolindegiaren jarduera baimena.
**UDAL TEKNIKARIA**: Ibon Goikoetxea Retegi
**ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.07/2022-0233**

## 1. **AURREKARIAK**

- 2020ko abenduak 28an Interesatuak jarduera eta obra proiektua aurkeztu du gasoindegia legeztatzeko.
- 2022ko Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak jakinarazi du, jarduera gauzatzen den lekuan, lehendik ez dela lurzorua potentzialki kutsatzeko arriskua duen jardurearik gauzatu, eta beraz, ez dagokiola lurzoruaren kalitateari buruzko prozedura abiatzea.

## 2. ARAUDIA

- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.
- 10/2021 LEGEA, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

## 3. TXOSTENA

Baimen eskaera noiz egin den kontutan hartuta, eta 10/2021 Legeko lehen xedapen iragankorraren baitan, interesatuak espresuki lege berriaren baitan izapidetzeko eskatu ezean, aurretiazko legediaren baitan izapidetuko da, hau da, 3/1998 ingurumen legearen baitan, gauzak horrela:

- **Kokalekua.** Lizentziaren xede den jarduerak hurrengo kokalekua du: Aritzeta I. Ap-8 autobidea, 27,1 P.K. Usurbil.



- **Eremua.** Udal hirigintza arauei dagokionez, aipatu hornitegi-gasolindegia komunikabideen sistema-orokorreko lurretan kokatzen da.



Lurzoru mota honetan, indarrean dauden Errepide Arauen Xedapenak, bere Erregelamenduak eta garatzen dituzten arau foralak eta gainontzeko araudi baterakideak ezarritakoak baimenduko dira.

**Proposatzen den erabilera bateragarria da Usurbilgo Udalaren Arau Subsidiarioetan ezarritakoarekin.**

- **Aurkeztutako dokumentazio.** Hurrengo dokumentazioa aurkeztu da.

  - Ordezkaritza baimena. (Emma Gabalda Pons, NAN 74370598 zbk., baimentzen da Cedipsa Compañía Española Distribuidora de Pretroleos, S.A.-ren izenean jarduteko).
  - Legeztapen eskaera orria.
  - Jarduera legeztapen proiektua, teknikari eskudunak (David Jesus Perez Sanchez, 23208 elkargo zenbakidun, ingeniari tekniko industrialak inatuta. Proiektuak hurrengo atalak ditu:
    - Memoria.
    - Baldintza partikularren agiria.
    - Segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterlana
    - Aurrekontua. (401.907,71 €)
    - Planoak

**Aurkeztutako dokumentazioak, ingurumen administrazioak ezarritako baldintzak betetzen ditu eta bidezkoa da, jendaurrean 15 eguneko epean jartzea (dagokion aldizkari ofizialean eta Udalaren**

**egoitza elektronikoan argitaratuta). Aldi berean, nahitaezkoa eta loteslea den osasun txostena eskatuko da eta pertsonalki jakinaraziko zaio inguruko auzotarrei.**

- **Jarduera.** Eskabidearekin batera aurkeztutako memorian ezarritakoaren arabera, jarduera hau instalatu nahi da:
  - Erabilera. Erregaiak eta erregai likidoak saltzea , merkataritza jarduera bati lotuta. CNAE-kodeak.
    - 47.30 Automobilgintzarako erregaiaren txikizkako merkataritza establezimendu Espezializatuak (gasolindegiak)
    - 47.11 Txikizkako merkataritza, honako hauetan nagusi diren establezimendu espezializatuetan: Elikagaiak, edariak eta tabakoak (dendak).
    - 45.20 Ibilgailu motordunak mantentzea eta konpontzea (garbiketa-eremuetarako eta xurgatzea)
  - Azalera. 2.970 m² (Eraikina, garbitze gunea eta sarbideak kontutan hartuta) guztira, eta eraikinak 290,66 m².

**Neurri zuzentzaileak.**

Legeztapen eskaera Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legea indarrean sartu baino lehen egin denez, eta interesatuak ez duenez araudi berriaren baitan izapidetzeko eskaerarik, **neurri babesle eta zuzentzaileen txostena eskatuko da Eusko Jaurlaritzako ingurumen organoari.**

**3. ONDORIOA**

Aurkeztutako agiriak ikusita, eta txostenean azaldutakoa kontutan hartuta, jardueraren **ALDEKO** txostena igortzea proposatzen da.

Beraz bidezkoa litzateke:

- Dokumentaztioa osasun sailera igortzea.
- Espedientea jendaurrean jartzea.
- Inguruko auzotarrei jakinaraztea.
- Horretarako, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Usurbilgo Udalaren Egoitza Elektronikoan argitaratuko da.
- Eusko Jaurlaritzako ingurume eskumenak dituen organoari neurri babesle eta zuzentzaileak ezartzeko txostena eskatzea.

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## E R A B A K I A

**LEHENDABIZI***:* CEDIPSA, COMPAÑIA ESPAÑOLA DISTRIBUIDORA DE PETROLEO, S.A. enpresak AP-8, P.K. 27,1 (Donostiaruntz) - Aritzeta I helbidean ezarri nahi duen gasolindegi jarduerari ALDEKO INFORMEA EMATEA, proposaturiko kokamendua eta

gainerako inguratzaileak, egungo Planifikazio Urbanistikoekin eta Otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurugiroaren Babeserako 3/1998 Legeak xedatutakoarekin, ados daudelako.

**BIGARRENA**: Era berean informatu, kokalekuan eta bere inguruetan efektu gehigarririk sor lezakeen antzeko jarduerarik ez dela.

**HIRUGARRENA**: Erabakia eta Espediente osoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera bidali dadila, Neurri Zuzentzaileak ezar ditzan.

**5.- JAUREGUIZAR PROMOCIÓN Y GESTIÓN INMOBILIARIA S.L. ENPRESAK, HAASETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUKO F PARTZELAN ERAIKITAKO 28 ETXEBIZITZA, 52 GARAJE ETA 93 TRASTELEKUEI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. zenbakia: HZ.04/2018-0036

JAUREGUIZAR Promoción y Gestión Inmobiliaria S.L. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko F partzelan eraikitako 28 etxebizitza, garaje eta trastelekuen lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko abenduaren 5ean eginiko bilkuran, zera erabaki zuen: JAUREGUIZAR Promoción y Gestión Inmobiliaria S.L. enpresari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko F partzelan 28 etxebizitza, garaje eta trasteleku eraikitzeko udal baimena ematea.

| OBRAREN EZAUGARRIAK | |
|---|---|
| Exekuzio Proiektua - EMA: | 2.322.410,45 € |
| **Obra amaierako ziurtagiria - EMA** | **2.370.325,00 €** |
| Obrari dagozkion hobariak: | Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberako hobariak ez dira aplikagarriak. |
| Hondakinen Kudeaketarako Azterlana: | Aurrekontua: 9.144,83 € |
| | Fidantza (%120): **10.973,80** €. |

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera eraikitako 28 etxebizitza, garaje eta trastelekuen lehen erabilera baimena eskatu da.

TXOSTEN TEKNIKOA

Data: 2022/10/25

Udal aparejadoreak, Imanol Etxeberria Galarza jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagozkion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2022ko urriaren 17an, aldeko txostena eman du.

Gauzak horrela, udal teknikarien txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI***:* JAUREGUIZAR Promoción y Gestión Inmobiliaria S.L. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko F partzelan eraikitako 28 etxebizitza, 52 garaje eta 93 trastelekuei lehen erabilera baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Hilabeteko epean, obra berriko aitortza aurkeztu beharko da, etxearen banaketa horizontalaren aitortzarekin batera, Jabetza Erregistroan inskribatu ondoren.

  Obra berriko aitortzan, aurkeztutako eraikuntzan, baldintza hauek sartu beharko dira terrazei, ataripeei eta arropa eskegitzeari dagokienez:

  - berariaz debekatuko die edozein solairutako etxebizitzen jabeei proiektatutako terrazak ixtea, baita esekitokiak, pergolak, pabiloi estaliak edo, oro har, toldo biribilgarriak ez diren beste edozein elementu jartzea ere. Horiek, instalatuz gero, eraikin osorako eredu eta kolore bakarrera egokituko dira.

  - berariaz debekatuko da proiektatutako ataripeak zurgin-mota ororen bidez ixtea eta, orobat, berotegiak, pabiloi estaliak edo, oro har, azalera eraikia handitzea dakarren edozein elementu jartzea.

  - berariaz debekatuko die jabeei fatxadan jartzea, leihoko esekigailuetan nahiz terraza edo balkoietan, esekitokietan egin behar dutela adierazita. Beraz, debekatuta dago balkoietan edo terrazetan arropa jartzea, jarduera horrek eragin negatiboa baitu hiriaren estetikan eta eraikinaren beraren apainketan.

– Etxebizitza berriei udal erroldan alta eman aurretik, hilabeteko epean Ondasun Higiezinen gaineko Zergan alta eman beharko zaio U-4 inprimakiaren bitartez. Beraz, Ondasun Higiezinen gaineko Zergan alta eman aurretik inork ezingo du etxebizitzan erroldatu.

Etxebizitza berriak honakoak dira:

| KALEA | ATARIA | SOLAIRUA | ATEA |
|---|---|---|---|
| Latsari kalea | 2 | 01 | A |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Latsari kalea | 2 | 01 | B |
| Latsari kalea | 2 | 02 | A |
| Latsari kalea | 2 | 02 | B |
| Latsari kalea | 2 | 03 | A |
| Latsari kalea | 2 | 03 | B |
| Latsari kalea | 2 | 04 | A |
| Latsari kalea | 2 | 04 | B |
| Latsari kalea | 2 | Teilatupea | A |
| Latsari kalea | 4 | 01 | A |
| Latsari kalea | 4 | 01 | B |
| Latsari kalea | 4 | 02 | A |
| Latsari kalea | 4 | 02 | B |
| Latsari kalea | 4 | 03 | A |
| Latsari kalea | 4 | 03 | B |
| Latsari kalea | 4 | 04 | A |
| Latsari kalea | 4 | 04 | B |
| Latsari kalea | 4 | Teilatupea | A |
| Latsari kalea | 4 | Teilatupea | B |
| Latsari kalea | 6 | 01 | A |
| Latsari kalea | 6 | 01 | B |
| Latsari kalea | 6 | 02 | A |
| Latsari kalea | 6 | 02 | B |
| Latsari kalea | 6 | 03 | A |
| Latsari kalea | 6 | 03 | B |
| Latsari kalea | 6 | 04 | A |
| Latsari kalea | 6 | 04 | B |
| Latsari kalea | 6 | Teilatupea | A |

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri udal kontuhartailetzari ematea, ordaindu beharreko udal zergen behin betiko kitapena egin dezan.

**LAUGARRENA**: Erabaki hau interesatuei, udal erroldako arduradunari, ur zerbitzuaren ordainketa-erroldaren arduradunari, Errenta eta Ondare Teknikaria, Kontuhartzaileari ematea.

Data: 2022/10/25

Gai-ordenetik kanpo, ondorengo puntua txertatu da presazko izaerarekin, batzarkideek aho batez txertatzea berretsi ondoren:

**6.- USURBILGO ALTAKO UR HORNIDURA INSTALAZIOAREN HOBEKUTZA LANAK GAUZATZEKO OBRAREN LIZITAZIOAN, ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA.**

Esp.zkia: ID.05/2022-0144

2022ko irailaren 27an egindako ohiko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen USURBILGO ALTAKO UR HORNIDURA INSTALAZIOAREN HOBEKUTZA LANAK GAUZATZEKO OBRA kontratazio espedienteari onespena eman zitzaion eta lizitazio iragarkia Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen. Proposamenak aurkezteko epea 2022ko urriaren 25ean amaitzen da (14:00).

Zerbitzu saileko proposamenez eskaintzak aurkezteko epea luzatuko du Usurbilgo Udalak, horretarako legezko aukera baliatuz.

Kontratazio Teknikariak txosten juridikoa osatu du.

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**E R A B A K I A**

**LEHENA:** USURBILGO ALTAKO UR HORNIDURA INSTALAZIOAREN HOBEKUTZA LANAK GAUZATZEKO OBRA kontratazio espedientean proposamenak aurkezteko epea ofizioz luzatzea beste 8 egun naturaletan, hau da, azaroak 2a arte (14:00ak arte).

**BIGARRENA**: Erabaki hau Kontratatzaile Profilean argitaratzea.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**